


ZEREGIN OHIKOAK BIDEOKIN

GRABAKETA VLC-KIN

Irakaskuntzan ohikoa da bideo sekuentziak edo zatiak erabili behar izatea. Bideo zatiak prestatzeko prozesu ezberdinak daude. Gida honek VLC VideoLAN softwarea erabiliaz modu errazenetarikoak erakusten ditu.

Berez, VLC-k grabaketa egiteko beharrezko dituen kontrol aurreratuak ezkutatu ditu. Horiek bistarazteko, goiko **VER** menuan sartu eta **CONTROLES AVANZADOS** hautatu.



Menu aurreratuak aktibatzean, erreproduzio kontrolen gainean botoi berri batzuk azaltzen dira, azpiko irudian ikus daitezkeen bezala.




Prest gaude. Grabatu nahi dugun bideo edo DVDa ohiko eran abiarazi behar dugu grabatzea nahi dugun unetik. Bideoa abiarazitakoan menu aurreratuak botoiak aktibatzen dira.



Grabaketa hastea nahi dugun unean, menu aurreratuak botoi gorria sakatu. Honekin, dagoeneko bideoa grabatzen hasten da. Grabaketa amaitzea nahi dugun puntuan botoi bera sakatu.




Grabatutako bideo zatia ordenagailuko **VIDEO** karpetan gordetzen da izen honekin: **vlc-erregistro-data-time-nombre_video**



DVD BAT ORDENAGAILURA KOPIATU

DVD bat ordenagailu, disko gogor edo Pen-Drive batera kopiatzeko:

Ireki EQUIPO leihoa eta DVDa hautatu eskuineko botoiarekin. Laster-menuan **ABRIR** o **ABRIR EN UNA VENTANA NUEVA** aukeratu.



AUDIO_TS eta **VIDEO_TS** karpetak dituen leihoa irekiko da. DVDa gordetzea nahi dugun direktoria **AUDIO_TS** eta **VIDEO_TS** karpetak kopiatu. Kopia amaitzean, direktorio berriaren izena aldatu DVDaren izenburuarekin. Kopiatutako bideoa ikusteko, direktorio berria hautatu, saguaren


eskuineko botoiarekin eta testuinguru menuan **VLC**rekin

erreproduzitu aukeratu. VLC-k, karpeta DVD bat izango balitz bezala

erreproduzitu du, bere menu, azpigitu, eta abarrekin.



DESCARGAR VIDEOS DE INTERNET




Beste ohiko zeregin bat bideoak Internetetik jaitea izan daiteke, YouTube, vimeo eta antzerako web guneetatik.

Beti posible ez den arren, gehienetan **Firefox-en Video Download Helper** plugin-arekin lor daiteke. Plugin hau deskargatu eta instalatzeko web gune hau ikusi: <https://addons.mozilla.org/es/firefox/> Behin instalatuta, Firefoxen interfazean ikono berri pare bat azaltzen dira. Pluginak, ikusten ari zaren webgunean, bideoaren bat dagoela detektatzen badu interfazeko bolak koloreztatu eta



bideoaren bertsio kopuruak adierazten ditu. Kolorezko bolen gainean klik egitean, pluginaren interfaz osoa azaltzen da, bideoaren bertsioak bistaraziz.



Gordetzea nahi dugun bertsioan klik egitean, bideoa non gorde nahi dugun galdetzen duen leihoa azaltzen da.

Batzuetan, metodo honek arazoak ematen ditu, baina web gunean dagoen bideoa Firefoxen abiaraziz gero konpon daiteke.